

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresan hainbat jarduera desberdin eskaintzen ditugunez, ondorengoak izango dira proiektuak funtziorako beharrezko bazkide eta hornitzaile nagusiak: Irizar autobus enpresa, kultur ekintzak antolatzen dituzten enpresak eta herri ezberdinetako jatetxe, landetxe eta tabernekin ere arituko gara lanean.

Irizar autobus enpresak esate baterako, gure bezeroak antolatutako ekintzetara garraiatzen lagunduko digu, autobusaren zerbitzuaren helburua, denok batera joan, trafiko gutxiago sortu eta ingurumena gutxiago kontaminatzea izango da, bezeroaren gastuak murriztearekin batera. Autobusak jende kopuruaren arabera kontratatuko ditugu. Horrez gain, esan bezala kultur ekintzak antolatzen dituzten enprekin kontantuan izango gara; horrela, gure zerbitzua eskaintzeaz gain, eskaintza bereziak ere izango dira, kultur ekintzetan ere parte hartzeko (kontzertuak, antzerkiak, erakusketak...). Azkenik, gure zerbitzuaren iraupena anitza izango denez, herri ezberdinetako jatetxe eta tabernetan dastatzeko aukera emango dugu, horrela familiek egun osoko planak egin ditzazkete. Taberna eta jatetxeez gain, bezeroek aukera izango dutenez egun bat baino gehiagotan gure zerbitzuaz gozatzeko, lo egiteko lekuek ere parte hartuko dute gure proiektuan, adibidez, hotelak.

Gure helburu garrantzitsuena gure bezeroak gustura egotea denez, ekintza ezberdinak eskaintzeaz gain, segurtasuna ere eskainiko diegu. Irteera bakoitzeko, mediku espezializatu bat kontratatuko dugu, ezbeharren bat gertatuz gero lehenbailehen medikuaren arreta edukitzeko eta beharrezko ekipamendua ere eskainiko diegu; horrela, ez dute ezer berezirik erosi beharko.